




## THEfirstNEWS

Keep in touch with  
the news

from Poland

VISIT >



## THEfirstNE

The beautiful si  
of Polar

VISIT >



[Inicio](#) > [Ortzadar](#)

LITERATURA

# Gorputzetik idatzitako istorioa

Markina-Xemeingo Udalak antolatzen duen Peru Abarka album lehiaketa irabazita, 'Ezpainetakoa' album ilustratua kaleratu dute Ane Labakak eta Malen Amenabarrek

ALAZNE CORRAL - 2018(e)ko azaroaren 25a, igandea - 11:09etan eguneratua

## Más sobre Ortzadar

Klase praktikoa



Generoak eta hizkuntzak bat egiten dutenean





*Ane Labaka (idazlea) eta Malen Amenabar (ilustratzailea), batera ondu duten album ilustratua eskutan dutela. (EREIN)*

Gauza batzuk ez dira inoiz bukatzen. Bukatu aurretik galdu egiten ditugu beti” -esan zidan Nereak taberna zuloren bateko komun are zuloagoan-. Ezpainetakoak, adibidez”. Horixe da Ane Labakak Ezpainetakoak idazlanari emandako hasiera. Gorputzetik idatzitako testu sakona da Labakarena, erotismoz osatutako narrazio ederra, albumaren ezinbesteko bi osagaiak elkartuz: testua eta interpretazioa.

Kontakizun kronologiko batek osa-tzen du testua, baina, tartean, hausnarketa batzuk sartzen ditu Labakak, nahiz eta hasieratik hartutako erabakia ez izan: “Urte askoan, terapia moduko zerbait izan da niretzat idaztea;beste asmorik gabe egin izan dut, eta lagundu dit korapilo batzuk




Belarrimotz eta maketoen bizitza, kantuan



Alaine Agirre: “Sentsibiltatez idatzitako arantzatsu bat da”



Azpitululuak.eus, biziberrituta



[ir a Ortzadar »](#)

askatzen. Beti eduki izan dut idazteko ohitura, baina oraingo bizi estiloarekin ez daukat denbora nahikorik. Iruditzen zait horren ondorioa dela; hau da, daukadan bizi erritmoagatik, horrelako collage estiloko zerbait atera zaidala”. Kontakizunean botere harremanak, sexua, maitasuna eta abar ageri direla jakinarazi du Labakak. “Gorputzean hainbeste arreta jartzeak ahalbidetzen zidan gorputza zeharkatzen duten beste hainbeste gauzez hitz egitea”, gaineratu du.

Ez da Labaka eta Amenabar elkarlanean aritzen diren lehenengo aldia, Txakur Gorria sormen kolektiboko kideak baitira biak, Nerea Ibarzabal eta Mariñe Arbeorekin batera. Oraingoan, Markina-Xemeingo Udalak eta Ereinek antolatzen duten Peru Abarka lehiaketan gurutzatu dira beren bideak. Lehenik, narraziorik onenari dagokion atala irabazi zuen Labakak eta testu horren ilustratzailea aukeratu zuen epaimahai batek, ondoren.

Beraz, Labakak idatzitako testu itxiaren inguruko interpretazioaren bitartez egin zituen ilustrazioak Amenabarrek. Testuak berak zuen pisua mantendu nahi izan zuen albumaren ilustratzaileak. “Literalki ilustratzen baldin banuen, erredundanteegi geratuko litzateke. Orduan, jolasa deitu nion sortu nuen horri”, eman du jakitera Amenabarrek. Lehen pertsonan dago idatzita kontakizuna, eta marrazkietan ere pertsonaia bakarra ageri da, emakume pertsonaia baten gorpu-tza, hain zuzen. “Lehenengo pertsonan idatzitako istorioa denez, pertsonaia bat bakarrik marraztea erabaki nuen -azaldu du ilustratzaileak- eta, bereziki, pertsonaia horren gorputza, nire pertzepzioa baitzen oso gorputzetik idatzitako istorioa zela Anerena. Biluzte ariketatik asko duen kontaketa intimoan dago, orobat, fikzioaren eta errealtatearen arteko jokia”.

Testuaren eta ilustrazioaren arteko oreka aurkitzeko, Amenabarrek irudi figuratiboak erabili ditu zati kronologikoetan eta tipografiek jolastu du hausnarketetan. Istorioari osotasuna emateko, irudi denak geruzekin osatu ditu, eta geruza batzuk irudi guztietan errepikatu ditu. Koherentzia

LO +  
LEÍDO

LO +  
COMENTADO

VÍDEOS

FOTOS

GALERÍAS

mantentzeko, “mosaiko antzeko bat” irudikatu nahi izan du Amenabarrek, irudi guztietan errepikatzen den manta moduko bat islatzeko. “Niretzako kontakizun hau da, domeka arratsalde euritsu eta deprimente batean, manta batean bilduta irakurtzeko modukoa. Norberak bere baitan egoteko irakurtzekoa. Lagunen artean bitxobola egunak deitzen dizkiegu halakoei”.

HELDUENTZAKO LANA Ezpainetakoa ez da haurrentzako album bat, helduentzako liburu ilustratu bat baizik. Euskal literaturaren panoraman ez da batere formatu ohikoa honakoa, ez behintzat euskarazko lanei dagokienean, baina honen alde egin dute beste behin Markina-Xemeingo Udalak eta Erein argitaletxeak. Halako lehiaketan helburua genero honetako lanen zabalkundean laguntzea dela dio Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko editoreak. “Mota honetako lanen zabalkundea ez da erraza izaten, sentsibilitatea eskatzen duen generoa baita. Album ilustratua bere osotasunean dagozamina eskaintzen duena, izan ere, gozamina ez da bakarrik idatzian aurkitzen”.

Halako lanak egiten dituzten idazle eta ilustratzaileen maila, gazteen artean batez ere, “geroz eta altuagoa” dela dio Aldekoak. “Proposamen bikainak agertzen dira noizbehinka argitaletxeetatik”. Halere, zuhurtziaz jokatu ohi dute, merkatuan halako lanek jasotzen duten erantzuna ez delako lanen kalitatearen proportziokoa izaten. Aldekoak errealitate bera ikusten du, oro har, euskal kulturarekin eta liburugin-tzarekin: “Oso proposamen onak daude, baina batzuetan jende gehiago hurbiltzea da falta dena. Xabier Letek behin esan zidan gure zoologikoan animalia asko daudela eta bisitari gutxi. Ea ba horri buelta ematen diogun”.



Si tienes historias que contar  
**contacta con nosotros**  
WhatsApp - 610 21 35 06  
Email- [zuzaradeia@deia.eus](mailto:zuzaradeia@deia.eus)



Blogs de **deia**

[Ver todos](#)

¡comenta!



tweet



Atsegin dut 0

Partekatu

## Los lunes de resaca

Julian Goikotxeta



### Ter Stegen y el susto final

Y para rematar una intensa noche de mociones, el VAR. En el último segundo hubo como una parálisis... [\[+\]](#)

## El blog de Iñaki Anasagasti

Iñaki Anasagasti



### La política es diferenciación

Domingo 10 de febrero de 2019 El pasado lunes 28 de enero aparecía en Deia una entrevista a dos... [\[+\]](#)

## Desde otra mirada

Nekane Lauzirika



### Amazon no pagará tu pensión de jubilación

LO decía sin remoquete ni sonsonete alguno, pero sí con impotencia, el viejo tendero de mi barrio... [\[+\]](#)

## Euskal Herriko postalak

Inocencio Goikuria



### El Nervión por Luiaondo ( Aiara )

... [\[+\]](#)

## Más Que Palabras

Javier Vizcaíno



### Ahora sí, ahora no

Me van a permitir que me remita a las últimas líneas de mi anterior columna. Comentaba el viernes... [\[+\]](#)

## Bogando por la Red

Iker Merodio



### “Cualquier tipo de mecanismo”

Aunque nadie en este PP ha dado la más

## ÚLTIMA HORA

08:08 *Kacey Musgraves reina en unos Grammys históricos para Cardi B y Childish*

## Gambino

Lady Gaga brilla con luz propia gracias a sus tres gramófonos

---

06:01 *El Athletic choca contra un muro*

---

06:00 *Los porteros de discoteca deberán pasar un examen psicotécnico*

El Gobierno vasco aprueba el primer reglamento vasco de espectáculos públicos y actividades recreativas

---

06:00 *Presentan 182.000 firmas para despenalizar la eutanasia*

La familia de Maribel Tellaetxe, con Alzheimer, hará entrega de las peticiones en el Congreso

---

06:00 *Subvenciones de lo más solidarias*

La Fundación Antonio Menchaca ha repartido un total de tres millones de euros


---

**Acerca de Deia | Publicidad | Promociones | Suscríbete a Deia**

[deiadigital@deia.eus](mailto:deiadigital@deia.eus) | [Ir a la versión móvil](#) | Visite también [www.noticiasdenavarra.com](http://www.noticiasdenavarra.com) | [www.noticiasdegipuzkoa.eus](http://www.noticiasdegipuzkoa.eus) | [www.noticiasdealava.eus](http://www.noticiasdealava.eus)

© Deia - Noticias de Bizkaia | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#) | [Cookies](#) | [Política de Privacidad](#)

©Editorial Iparraguirre, S.A. · Camino de Capuchinos, 6, 5º C Bilbao · Tel 944 599 100, Fax 944 599 120

-  Suscripción por RSS
- Boletín
- Edición impresa en PDF
- Auditada por OJD
- [Ver mis preferencias de privacidad](#)